


LIZARDI MINTZA TALDEAREN HASIERAKO HELBURUAK

Lizardi mintza taldea sortzean, 1989an, honela planteatu genuen geure jarduera: *“Euskararen berreskurapenaren aldeko ekarpena egin nahi dugu euskararen erabilpena sustatuz. Horretarako, “guneen euskalduntzea” ideia oinarri hartuta, zaletasunen inguruko euskal guneak sortzea edota indartzea izango dira gure helburu nagusiak.”*

Hasieran **mendia eta kantagintza alorretan** lan egiteko dinamizatzaileak agertu zirenez, horietan **lan egiten hastea erabaki genuen** bestelako aukerei ateak zabalik utzita. Bestaldetik, gure eskaintza beti ere zabala izan den arren, oinarritzko helburua **Lizardi Euskaltegian bereziki eragitea** zen. Honela laburbil litezke helburuak:



LIZARDI MINTZA TALDEAREN HELBURUEN BILAKAERA

Duela urte batzuk **LizardiMT “Zazpikaleetako Euskal Txokoa” integratu zen**. Talde horretan gutaz gain Lizardi Euskaltegiako irakasle batzuk zeuden (Unai Dorronsoro, Irune, Lutxo Egia, Txarli...). Proiektuak iraun zuen urteetan LizardiMT taldeak bere ohiko jarduerekin jarraitu zuen, eta beste partaideek “uneak euskalduntzeko” motako proiektuari ekin zioten: mintzapraktika eskolak, literatur-jazza saioak... Urte horietan euskaltegiarekiko harremana indartu egin zen.

Urte gutxi batzuen buruan partaide berriek alde egin zutenean euren lana bertan behera ez uztea erabaki genuen, eta geure indarren neurriko **ekitaldi kulturalak antolatzen jarraitzea erabaki genuen: kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...** Horrekin batera, **geure eginkizun nagusia mendiaren eta kantagintzaren inguruan lan egiten jarraitzea zela adostu genuen**. Hortaz, ondoko helburu hau gehitu genien hasierakoei:

UNEAK EUSKALDUNDU
(mintza saioak,
hitzaldiak, kontzertuak...)

4 AUZOAN EKITALDI KULTURALAK EUSKARAZ ANTOLATU:
KONTZERTUAK, ANTZERKIAK, HITZALDIAK...